

## **Nafarroako Esaera Zaharrak. Uztarroze.**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## Nafarroako Esaera Zaharrak. Uztarroze.

Oar bat egin nai dut emen. Ni 1920-garren urtean Erronkari aldean ibilli nintzelarik, euskeraz zekien jenderik ez nuen arkitu Uztarrotz-en baizik; erri ontan geien zekiena Marko jauna zen. Eta neronek ere beta aundirik ez nuelako, ez nituen bildu al izan onako bi esaera auek besterik: 2410 2411.

**2410**      *Lantxerra martxoan noraino, aprilen elurra karaino (araño).*

**2411**      *Nai nokezu iltia on bat ekun.*

Nai nuke iltze (eriotze) on bat izan. Ekun = ukan, izan.

Gure erriko gizonik aipagarrienetakoa izan zen Azkue jaunak, Euskalerriko beste euskal-aberastasun asko bezela, bildu zituen esaera zarrak ere. Bere liburu "Euskalerraren Yakintza"-n argitaratu zituenetatik zenbait onera aldatu nai ditut: 2412 2413 2414 2415.

**2412**      *Debriak errezatan dionean, engañatu nai yai.*

Deabruak errezatzen duenean, engañatu nai au. Deabruak ez du iñoiz errezatzen, baiñan ain gaiztoa delarik, zenbait aldiz on-itxura, "aingeru eder itxura" artzen du kristauak bereganatzeko.

**2413**      *Oillo errule gaixtoak ez du abia onik erdeiten.*

Ez du kabi onik arkitzen. Erdeiten = erideiten = eriden, ediren, idoro = arkitu.

**2414**      *San Andres: txerria askan trabes.*

Arraskan etzanik, illik, txerria iltzeko garaia dela.

**2415**      *Trutx egiten duanak zeruari, beitartera zau berari.*

Lixtua zeruari botatzen dionari, berari aurpegira eroriko zaio. Oihenart-ek olatsu: "Thu etxatua zeruan gora, begitartera derora" (673).